

FUNTSEZKO ELKARTEAK

ZEIN DIRA BEHAR DITUGUN BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK GURE PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?

Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan beharrezkoa da **bazkide eta hornitzaile** egokiak izatea. Bazkide egokiak aukeratzeko, gure betebeharrak zeintzuk diren jakin behar ditugu eta ondoren bazkide zein hornitzaileak hautatu. Behar ditugun baliabideak lortzeko honako enpresa hauekin jarriko gara harremanetan:

1. Gure proiektua aplikazio bat denez, oinarrizkoa da aplikazioa erabiltzeko **mugikorretako sistemen enpresen hornitzaileak** izatea, gure aplikazioa haien mugikorretan erabiltzeko. Hornitzaileen artean, **Android** eta **Apple** egongo dira, zerbitzu bat emango digutelako gure aplikazioa **haien mugikorretan erabiltzeko**. Zerbitzu horren bitartez, gure aplikazioa haien aplikazioen **dendetan jartzeko aukera** izango dugu eta horrela bezeroek haien mugikorretan deskargatu ahal izango dute aplikazioa modu erraz batean.
2. Horrez gain, **aplikazioa sortzeko enpresa baten laguntza beharko dugu**. Enpresa honekin aplikazioa **sortuko** dugu eta **egoera onean** egoteaz arduratuko dira. Egoera ona mantentzeko, segurtasuna ere eduki beharko du, inork gure aplikazioa bereganatu nahi badu segurtasuna eduki dezan. Horrela arriskuak murriztu ditzakegu eta aplikazioa ondo egongo dela egiazta dezakegu. Honetan lagundu gaitzakeen hornitzaile bat **Appypie** izan daiteke.

ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?

Aipatutako enpresak, oso garrantzitsuak dira gure proiektua aurrera eramateko. Haien **laguntza ez baldin badugu**, ezin izango genuke gure aplikazioa edozein mugikorretan erabili eta edonork bereganatu ahal izango luke gure aplikazioa inolako segurtasunik gabe.

Hala ere, ez ditugu bazkide asko behar, izan ere, aplikazioa sortu dugunok baditugu jada beharrezkoak diren zenbait jakintza eta baliabide:

- **Uxue kontablea** izango da, beraz, ez dugu behar kanpoko enpresa batek lan hori egiterik.
- Beste alde batetik, **Maddi** izango da **marketin eta publizitatea** aurrera eramango duena, titulua baitu.
- Azkenik, **Eneko teknologiari buruz arduratuko dena** izango da; aplikazioak dituen **arazo txikiez arduratuko** da eta arazo handiagoa izanez gero, goian aipatutako enpresari laguntza eskatuko dio.